

03.

PANDITA RAMABAI



1858ko apirilaren 23a – 1922ko apirilaren 5a



Brahmandar kastako familia batean jaio zen, eta emakumeek ere heziketa jasotzeko eskubidea zutela guztiz sinetsita hezi zuen aitak.

Umezurtz geratu zen 1876-1877ko goseteen, eta nebarekin familian ezagututako bizimodua egiten jarraitu zuen, testu hinduak herriz herri aldarrikatuz. Testu sakratu horiek oso ondo ezagutzen zituenez, **“Pandita” eta “Sarasvati” tituluak (“doktore” tituluaren antzekoak) eman zizkioten.**

Kasta apalagoko abokatu batekin ezkondu zen (ezkontza zibila, debekatuta baitzegoen beste kastaren batekoekin ezkontzea), baina bi urte geroago alargun geratu zen, alaba baten ardura zuela (Manorama).

Bizitzako gainerako urteetan, emakumeen heziketa-eskubidea aldarrikatu zuen, hitzaldiak emanez jendaurrean, osasun- eta hezkuntza-esparruan nahiz bizitza publikoan zer eskubide zeuzkaten jakinaraziz. Era berean, hainbat testu idatzi zituen emakumeen errealitateari eta urte haietan bere herrialdean indarrean zegoen kasta-sistemari buruz.

1883 aldera, Ingalaterrara joan zen, eta kristautasunera aldatu. Diskriminazioa jasan zuen konbertsio horrengatik (alargun izateak eragindakoaz gain), baina horrek ez zion kalte egin haren lan handiari. Misio bat sortu zuen Punen emakumezko alargunentzat (emakumeen artean, bereziki ahula den sektorea); misioak, gaur egun, oraindik ere lanean jarraitzen du.



**Emakumeak
Indian**
Garapenaren eragile



ALBOAN